

2014

Gipuzkoako Foru Aldundia
ELE proiektua. Tolosaldeko Eremu
Funtzionaleko Lurralde Zatiko Planaren
Eragin Linguistikoaren Txostena

Torrene Consulting

bai ARKITEKTURA
HIRIGINTZA

artez 
euskara zerbitzua

Luzarra 10. 48014 Deustu – Bizkaia. Euskal Herria

(34) 944 480 000 posta@artez.net <http://www.artez.net> :

0 AURKIBIDEA

0	AURKIBIDEA	2
1	SARRERA	3
2	TOLOSALDEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA	4
2.1	Azpiegiturak	4
2.2	Bizitegi Asentamenduak	5
2.3	Ekonomia Jardueren Asentamenduak	5
2.4	Ekipamenduak eta Espazio Libreak	6
2.5	Ingurune Fisikoaren Antolamendua	6
3	METODOLOGIA	8
3.1	Abiapuntua	8
3.2	Prozesua	9
3.3	Hauskortasun indizea	11
3.4	LZParen eraginaren indizea	12
3.5	Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea	14
4	ERAGIN LINGUISTIKOA	17
4.1	Galdetegi laburra	17
4.2	Eragin linguistikoa identifikatzeko eta baloratzeko galdetegia	18
4.3	Eragin linguistikoaren laburpena	21
4.4	Eragin linguistikoa alderdiz alderdi	22
5	ONDORIOAK	30
5.1	Ondorio orokorrak	30
5.2	Ondorioak herriz herri	30
6	NEURRI ZUZENTZAILEAK	37
6.1	Lurralde antolaketa	37
6.2	Hirigintza plangintza	37
6.3	Kudeaketa	38
7	ERANSKINAK	40
7.1	Etxebizitza hazkundearen aurreikuspen taula	40
7.2	Euskararen ezagutza indizearen proiektzioa	41
7.3	Hauskortasun indizea. Udalerriz udalerriko taula	42
7.4	LZPren eraginaren indizea Udalerriz udalerriko taula	43
7.5	Taula gurutzatua: LZPren eragina eta hauskortasun indizea	44
7.6	Puntuazioak faktorez faktore LZPko kapituluaren arabera	45
7.7	ELE prozedura	78

1 SARRERA

Foru Aldundiak, UEMAK eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2012ko maiatzean udalerrri euskaldunak eta euskaldun kopuru handia dutenak zaintzeko, sustatzeko eta hedatzeko.

Udalerrri euskaldunak euskaldunen proportzio handia duten herriak eta auzoak dira, euskaraz egunero normaltasunez eta naturaltasunez bizi direnak. Haietan euskarak betetzen ditu edozein hizkuntzak betetzen dituen funtzioak: lana, familia bizimodua, lagunartekoa, administrazioarekiko harremana... Proportzioz euskaldunak gehiago diren udalerriotan, herritarrek euskara naturaltasunez erabiltzen dute beren komunikazio-behar gehienetarako.

Euskaraz bizi diren udalerrriak onuragarriak dira gure hirientzat, eta Euskal Herri osoarentzat ere bai, euskara hain zabaldua ez dagoen tokientzat eredu eta arnasa direlako. Horregatik, arnagune dira gure hizkuntzarentzat.

Mendekotasun egoeran dago euskara, eta arnaguneak behar ditu, bere funtzio guztiak mugarik gabe, askatasunez, bete eta garatzeko lekuak. Eusko Jaurlaritzak nabarmentzen duenez, hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu: *"Arnagune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehenasunezko tratuera garbia eman beharko zaie euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan"*.

Irizpide horiekin bat etorrita, udalerrri euskaldunak zaintzeko, sustatzeko, indartzeko eta hedatzeko urratsak egitea adostu zuten Kontseiluak, UEMAK eta GFAk

- **Egitasmoaren xedea**

Ondoren zehazten den egitasmoaren xedea Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jardura pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea, eta euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eraginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea da.

Herri erakundearen egitasmoek udalerrri euskaldunetako euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikusi, neurtu, eta balizko kalteak neurri zuzentzaileen bidez zuzentzeko edota murrizteko, Foru Aldundiak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak *prebentzioaren ikuspegia administrazioen jardunean txertatuko duen arau egitasmoa* zehaztuko dute, lankidetzan, eta bakoitzak bere eraginpeko esparruetan ezarriko du.

Araudiaren oinarrian egongo den sistemak jasoko ditu:

- Administrazioen jardueren inpaktu linguistikoak neurtuko dituen *Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa* (aurrerantzean *ELE*),
- Balizko kalte horiek saihestu edo murrizteko neurri zuzentzaileak eta horien ezarpenaren segimendua.

- **Tolosaldeko Lurraldearen Zatik Plan**

Tolosaldeko Lurraldearen Zatik Plan aukeratu da proiektuak sortu dezakeen egoera soziolinguistikoaren aldaketa lehendabizikoz ebaluatzeko. GFAk eta UEMAK garatu duten Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako tresna erabili da horretarako datozen orriotan.

2 TOLOSALDEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

Lurraldearen Zatik Planek (LZP) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea (LAL, maiatzaren 31ko 4/1990koa) dute abiapuntu. Lege horretan jaso bezala, LZPak lurralde antolaketaren artezpideen (LAA) eta udaletako hirigintza-plangintzen (HAPO) arteko lurralde antolamendurako figuratzat jotzen dira. Plan horiek, beraz, beren ezaugarriak eta kokalekua direla eta LAAen garapen gisa uler daitezke.

LAAek eremuetan (eremu funtzional) banatzen dute lurraldea. Eremu horietako bakoitza LZP baten bidez aztertzen da; izan ere, eskala fisiko eta funtzionaleko marko egoki ulertzen da lurraldea antolatzeko eta orekatzeko estrategiak aplikatzeko.

Tolosaldeko eremu funtzionalaren lurraldeak 323 km²-ko azalera du gutxi gorabehera, eta 28 udalerrik osatzen dute (Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil). Oria ibaiaren erdiko arroa okupatzen du, eta bat dator, oro har, Tolosaldeko eskualde tradizionalarekin.

Eremu funtzionalak 44.000 biztanle zituen gutxi gorabehera 2006. urtean.

Lurraldearen egungo okupazioan haranen hondoak linealki okupatzen dituen giza kontzentrazioa da nagusi, bi gunetan bilduta eta polarizatuta, Tolosa-Ibarra multzoan eta Villabonako hirigunea eta Zizurkilgo Elbarrena auzoa hartzen dituen hiri eremuan, muinoetako inguruetako eremu aski hutsekin kontrastean.

Tolosaldeko Eremu Funtzionalean bizi den biztanleriaren egitura sektoriala Gipuzkoako batez bestekoaren antzeko samarra da, baina baditu bereizgarri batzuk, hala nola industria-espezializazio handiagoa, paperaren sektorearen pisua eta zerbitzu-jardueraren presentzia urriagoa.

Garapen iraunkorra eta lurraldearen erabilera arrazionala helburu, oro har, ondoren deskribatzen diren 5 kapitulutan bana ditzakegu Tolosaldeko eremu funtzionaleko LZPan deskribatzen diren esku-hartzeak: azpiegiturak, bizitegi asentamenduak, ekonomia-jardueren asentamenduak, ekipamenduak eta ingurune fisikoaren antolamendua.

2.1 Azpiegiturak

Bide sareari dagokionez, hauxe proposatzen da: batetik, A-1 errepiderako sarbide kontrolatu gabeak kentzea Villabona eta Irura artean; bestetik, hiri-egitura orokorra indartzea eta ibilbide ez-motordunen sare bat sortzea, zumardi eta pasealekuen bidez, herriguneeen jarratasuna bermatzea da helburua. Horretarako ezinbestekoa da errepideak egokitu eta bide loturak garatzea, hala nola, Tolosa-Alegia eta Villabona-Anoeta, Oria ibaiaren ertz bien artean. Era berean, Ibarra eta Elbarrenako saihezbideak eraikitzea aurreikusten da.

Trenbide sareari lotuta, Abiadura Handiko Trenerako lurzoruaren erreserba jasotzen da LZPan, betiere, lurralde antolaketaren gidalerroetan definitutako trazaduraren garapen gisa. Horrez gain, aldiriko tren sarean zerbitzua eta maiztasuna areagotu ez ezik, Villabona-Zizurkil eta Anoetako egungo geltokien arteko trazadura aldatu eta Tolosan "intermodal" bat eraikitzeke asmoa erakusten du dokumentuak.

Errausketa-instalazioa da zerbitzuen azpiatalean jasotzen den esku-hartzerik esanguratsuena. Esan, egun moratoria bat dagoela errausketaren gaia dela eta alternatibak bilatu eta adosteko.

2.2 Bizitegi Asentamenduak

Udalerrien ezaugarrietan oinarritutako kategorizazioa ardatz izanik, 3 motatako hazkundeak aurreikusten ditu Tolosaldeko eremu funtzionaleko LZPak, ondoko sailkapenean azaldu bezala:

- **A.- Hiriburutzen sistemako hiriguneak**

Tolosa, Ibarra, Villabona, Zizurkil (Elbarrena)

Burutzak sendotzeko hazkunde selektibokotzat hartzen dira. Ondorioz, legozkienak baino hazkunde handiagoak bultzatzen dira horietan. Hazkunde berrietarako lehentasunezko eragiketak dira, besteak beste, Tolosa-Ibarra, Villabona-Anoeta eta Villabona-Elbarrena, non birmoldaketa bidez (Papelera del Oria) bizitegi erabilera bultzatzea proposatzen den. Horrez gain, babes-, birgaitze- eta hiri-berrikuntzako zenbait eragiketa aurreikusten da (Tolosa eta Alegiako herrigune historikoak, Tolosako hiltegia, etab.).

- **B.- Tamaina ertaineko hiriguneak**

Asteasu, Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Amezketa, Berrobi, Lizartza.

Hazkunde endogenoari aurre egiteko lurzoru politika bultzatzen da (Anoetari dagokionez, kontuan izan "A" atalean aipatutakoa).

- **C.- Landa esparruetako guneak (hiri eta natur inguruneetan)**

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Leaburu, Orendain eta Orexa guneak eta udalerrri horietako edo beste handiago batzuetako beste landa-auzo batzuk.

Bizitegi eskaintza alternatibo bat bultzatu ahal izango da, hazkunde motelez, intentsitate txikiz.

2.3 Ekonomia Jardueren Asentamenduak

Bizitegi asentamenduen atalean burutu bezala, udalerrien kategorizazio berri batean oinarrituko da ekonomia jardueren asentamenduen estrategia. Hala, komeni da argitzea nola irizpide ezberdinak jarraitzen dituzten bizitegi eta ekonomia jarduerak, sailkapen hori gauzatzeko orduan.

- **A.- Lehentasunezko intereseko udalerrriak (korridore nagusietan kokatutakoak, etab.)**

Aduna, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Alegia eta Ikaztegieta.

Batetik, gaur egun beteta dauden ehunak hobetu eta okupatu gabeko lurrak behar bezala garatzea aurreikusten da, kontuan izanik, A-1 errepidean zehar kokatutako udalerrri gehienek asetze maila altua dela eta garapena kalifikatuta dauden lurzoruera mugatzen dela. Era berean, Asteasu haranean eremu berrien kalifikazioa proiektatzen du planak (horretarako eraikita egon beharko litzateke Elbarrenako saihsbidea).

Bestetik, berrikuntza-eragiketak zuzentzea iradokitzen da hirugarren sektoreko jardueretarako eremu berriak garatzea xede.

Hala, lehentasuneko esparru estrategiko gisa ondorengo hauek definitzen dira:

- Tolosako Apattaerrekako poligonoaren bigarren fasea (15 ha)
- Adunako ibarra (22 ha)
- Villabona-Anoetako ibarra 40 ha. Gutxi gorabehera (20 ha) (*Ezinbesteko izango da, alde zurretik trenbidea mendebalderantz desbideratzea eta N-1 autobideak sortzen duen etena konpontzea)
- Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparrua

- **B.- Hazkunde moteleko udalerrriak**

Altzo, Amezketza, Belauntza, Bidania-Goiatz, Leaburu eta Lizartza.

Hazkundera gaur egun kalifikatuta dauden eremuetara mugatzen da. Horretarako, egonkortzeko eta hobetzeko bideratutako politikak aplikatzea proposatzen da.

- **C.- Garapen txikiko udalerrriak**

Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Orendain eta Oresa.

Hirigintza-plangintzaren ekonomia-jardueretarako lurzoru kalifikatuaren eremua 3 ha-ra mugatzen du LZPak.

2.4 Ekipamenduak eta Espazio Libreak

Hiri-ekipamenduei dagokionez, honako hau proposatzen du dokumentuak:

- Hezkuntza ekipamendua: Ekoizpen-ekimen berrietara lotutako prestakuntza-zentroak eta I+G zentroak zabaltzea, sustatu eta hobetzea.
- Kirol ekipamendua: Egungo ekipamenduak berrantolatu eta indarberritzeaz gain, kirol konplexu berri bat ezartzea eguneroko praktika eta entrenamendurako Villabona-Anoetako ibarrean..
- Osasun eta laguntza ekipamendua: Eskualdeko ospitale publiko / espezialitate zentro bat jartzea eta hirugarren adinekoentzako zuzkidurak zabaltzea. Kokapena arloko edo udaletako plangintzen esku legoke.
- Kultura eta aisialdiko ekipamendua: Udalaz gaineko eta eremu funtzionalaren mailari dagokion kultur zentroa jartzea.
- Merkataritzako ekipamendua: Tolosa-Ibarrarako merkataritza suspertzeko planak prestatzea.
- Hiri-inguruko parkeen zuzkidurak: Tolosa-Ibarrako eta Villabona-Elbarrenako gunen nagusien periferiak bere erabilera eta ezaugarrietara egokitutako ekipamenduez hornitzea.
- Bestelako zuzkidurak: Berrekipamenduko eragiketarako egitea “lurralderako sarreragune” gisa kategorizatutako udalerrietan, hots, Alkiza, Bidania-Goiatz, Berastegi, Amezketza eta Abaltzisketa.

Horiez gain, mota ezberdinetako ekipamendu eta azpiegiturak aurreikusten dira landa eremu eta ingurune naturaletan, hala nola, jolas-eremuak, atsedeen-eremuak aparkaleku eta altzariez hornituta (erakargarritasun paisajistikoko lekuetan, etab.), pasealekuak, bidegorriak, “barruko hondartzak”, etab.

2.5 Ingurune Fisikoaren Antolamendua

Tolosaldeko eremuaren ingurumena babestea helburu duen legedi, araudi eta planak hartzen ditu bere baitan kapitulu honek. LZPak ondorengo sailkapenean jasotako eremu bakoitzeko erabilerak eta jarduerak arautzen ditu.

- **BABESTU BEHARREKO EREMUAK**

- Natur intereseko eremuak

- Naturgune babestuak: Aralarko Natura Parkea. Leitzarango biotopoa. Zuhaitz apartekoak (...)
- Natura 2000 Sarea: ES2120011 Aralarreko BIL, ES 2120005 Oria ibaiko BIL, ES 2120012 Araxes ibaiko BIL.

- Interes naturalistikoko eremuak eta beste barrendegi interesgarri batzuk: Jazkugañe eta Basabe eremua, Murumendi, Atxulondo-Abalotz, Orexaran erreka.
- Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak
 - Interes geologikoko eremuak: Aralar, Hernio-Gazume.
 - Interes geologikoko guneak: 7 gune dira eta “Gipuzkoako interes geologikoko guneak” (GFA) bilduman barne hartuta daude.
 - Monumentu megalitikoak eta haitzuloak: (...)
- Nekazaritza- edota ingurumen-intereseko eremuak
(Dok. grafikoko 1.1 planoan “nekazaritza-babeseko eremu gisa daudenak)
 - Zizurkil eta Elizmendiko guneen arten dagoen esparrua.
 - Berastegiko, Aintzergako eta Bidania-Goiatz haran garaiak.
 - Altzoko sakonunea.
 - Bedaioko ibarra.
 - Orendain eta Abaltzisketa arteko muinoak eta mazelak.
- Interes hidrologikoko eremuak
 - Lur gaineko uretan: urtegiak, ibai ibilguak eta babes-lerroak
 - Lur azpiko uretan: akuiferoak
- **HOBETU EDOTA LEHENERATU BEHARREKO EREMUAK**
- Ekosistemak hobetzeko eremuak
 - Interes naturaleko eremuen kategorian barne hartu ez diren baso naturalak eta horietan sortzen diren zuhaixka formazioak barne hartzen ditu.
- Baso-kontserbazioko eremuak
 - Malda handiko, sakonera gutxiko edota higadura jasateko arriskua duten lurzoruetan baso-masa handiak jasaten dituztenak.
- Erabiltzen ez diren mehatze, harrobi eta zabortegeiak
 - Oraindik erabiltzen diren ustiapenen eremuak, eta ustiapenak amaitutakoan, ingurumen-baldintzak leheneratu beharko dituzten eremuak.
- **KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA (diseinatzeko)**
Korridoreen sare bat sortu nahi da (ibaietakoak, basoetakoak, nekazaritzakoak, eta abar), eremu funtzionaleko interes natural handieneko espazioen artean, bai eta inguruko eremu funtzionalen artean ere, konexio ekologikoak ahalbidetzeko, hartara, bertako ondare faunistikoa eta floristikoa kontserbatuko dela ziurtatzeko.
- **EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK (IRADOKIZUNAK)**
 - Ondarea kontserbatzeko eta integratzeko plana
 - Natur baliabideak erabiltzeko plana.
 - Askotariko jarduerak sustatzeko plana
 - Interpretazio, ikerketa eta administrazio plana.

3 METODOLOGIA

3.1 Abiapuntua

Tolosaldeko eskualdeko biztanleria 4 udalerrri nagusietan biltzen da batez ere (Tolosa, Villabona, Ibarra eta Zizurkil). 2006an, eremu funtzionaleko biztanleriaren %69 bizi ziren udalerrri horietan. Lau udalerrri hauek bi hiri-aglomeratu eratzen dituzte (Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil), eta hauek buruak dira eremu funtzionalean bereiz daitezkeen bi lurralde eremuetan.

Era berean, biztanleria eta garapenari lotutako irakurketa batetik abiatuta, esanguratsua da Oria haranaren ondoan ezarritako korridoreak eskualdean duen protagonismoa. Korridore horren gainean zuzenean kokatutako 9 udalerriek eremuko biztanleria osoaren %81 hartzen zuten 2006. urtean. Irudi horri kontrajarrita, eremu funtzionaleko biztanleria txikiko udalerrri kopuru handia dago: eremuko 28 udalerrietatik 16 ez ziren 500 biztanlera iristen 2008. urtean.

Etorkizuneko irudia laburbilduz, eskualdeko biztanleria nolabait ere egonkorra aurreikusten da 2006-2026 aldirako. Hala, LZPak proposatzen duen lurralde ereduaren definizio eta dimentsionamenduak iraunkortasuna eta orekaren irizpideak izango ditu abiapuntu. Batetik, garapen iraunkorraren eskutik, bizikaltatearen areagotzea aurreikusten da. Bestetik, lurraldearen erabilera arrazionala egitea da planaren xedea (baliabideen ustiapenerako mugak ezartzea, lurraldearen harrera-ahalmena errespetatzea, etab.).

LZParen gaitasunen artean, ondorengoak nabarmendu daitezke: herrien arteko koordinazioa ahalbidetzeko baldintzen ezarpena eta bizitegien zenbatespena.

Planak izan dezakeen eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko, ezinbestekotzat jo da eremu funtzionalaren egungo egoera eta LZPk aurreikusitakoa alderatzea, betiere, kontuan izanik, esku-hartzeak osotasunean gauzatu direla.

LZPak planaren eremu funtzionalean euskararen ezagutzan izango duen eragina aztertzeke, oinarritzat hartu dira etxebizitza hazkundera eta ekonomia jarduerak ezartzeak ekarriko dituen biztanleria aldaketak .

Erabilitako ezagutza eta erabileraren datuak 2011ko biztanleriaren erroldakoak dira.

Tolosaldeko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, euskara maila globalaren arabera. 2011					
	Guztira	% Euskalduna	Euskalduna	la euskaldunak	Erdaldunak
Abaltzisketa	306	94,1	288	9	9
Aduna	420	86,4	363	36	21
Albiztur	278	92,1	256	15	7
Alegia	1.721	76,7	1.320	220	181
Alkiza	338	88,5	299	21	18
Altzo	344	86,6	298	27	19
Amezketeta	924	91,9	849	31	44
Anoeta	1.767	71,2	1.258	292	217
Asteasu	1.434	80	1.147	162	125

Baliarrain	119	95,8	114	1	4
Belauntza	291	79,4	231	25	35
Berastegi	1.009	87,9	887	67	55
Berrobi	560	77,5	434	67	59
Bidegoian	514	87,4	449	33	32
Elduain	222	91,4	203	12	7
Gaztelu	163	92,6	151	6	6
Hernalde	347	81,8	284	37	26
Ibarra	4.099	65,1	2.670	644	785
Ikaztegieta	450	79,1	356	54	40
Irura	1.506	72,8	1.096	258	152
Larraul	239	85,8	205	22	12
Leaburu	373	81,5	304	42	27
Lizartza	626	82,3	515	55	56
Orendain	168	89,3	150	13	5
Orexa	107	95,3	102	3	2
Tolosaldea	17.823	66,1	11.787	3.418	2.618
Villabona	5.588	66,5	3.718	985	885
Zizurkil	2.742	67,7	1.855	457	430
Guztira	44478	71,0%	31589	7012	5877

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak 2011

Biztanleen %71 euskalduna da, eta ezagutzaren portzentajea udalerriz udalerrira aldatzen da, Ibarako %65,1etik hasi eta Baliarrain %94,1 bitartean..

Aurreko kapituluaz azaldutako udalerrien sailkapena oinarri (A, B eta C) eta eskualdean 4.100 etxebizitza berri eraikitzeko aurreikuspena abiapuntu, herri bakoitzeko etxebizitza-hazkundearen zenbatespena kalkulatu da, estimazio bidez. Eragiketa horrek ahalbidetu du, batik bat, etorkizuneko egoeraren irudikapena.

3.2 Prozesua

Lehenik eta behin Balorazio Batzorde bat eratu da, diziplina anitzeko profesionalen osatuta:

- **Goio Allika Anduiza**

Arkitekturan lizentziatua

Hirigintza Masterra

Hirigintza eta lurralde antolaketari buruzko araudiaren inguruko ikastaroak

- **Iurdana Txintxurreta Rotaetxe**

Arkitekturan lizentziatua

Hirigintza Masterra

Hirigintza eta lurralde antolaketari buruzko araudiaren inguruko ikastaroak

Gernika-Lumoko udalean arkitekto aholkulari

- **Iñaki Ruiz De Pinedo**

Soziologia Lizentziatua, Hirigintza arloko espezialitatean

- **Teresa Roca Fernández**

Zientzia Politiko eta Sozialean lizentziaduna urbanismo espezialitatean

Politika eta Zerbitzu Sozialen masterra Deustuko Unibertsitatean

Emakume eta gizonen berdintasun agentea.

- **Estiñe Astorkia Kortabitarte**

Euskal Filologia ikasketak

Kudeatzaile eta aholkulari enpresen eta udalen normalizazio planetan (9 urte)

- **Arritxu Zelaia Etxeberria**

Komunikazio eta Informazio zientzietan lizentziatua

Kudeatzaile eta aholkulari enpresen eta udalen normalizazio planetan (15 urte)

Balorazio Batzordeak fitxa bat sortu du, eta bertan jaso ditu eragin linguistikoa neurtzeko tresnaren 33 faktoreak. Faktore bakoitza Lurralde Zatik Planaren bost arlo nagusien arabera baloratu da:

- Ekipamenduak
- Etxebizitza hazkundera
- Azpiegiturak
- Industria/ekonomia
- Ingurumena

Horrela izanik, 33 faktoreak LZParen arlo nagusietako bakoitzean baloratu dira, eta balorazioa osatzen duten 11 elementuen arabera (33 aspektu, 5 arlo eta 11 elementu; guztira 1.815 balorazio egin dira). Faktoreka kalkulatu da formula honen arabera:

$G = -1 * (3 * \text{intentsitatea} + 2 * \text{hedadura}) + \text{unea} + \text{iraunkortasuna} + \text{itzulgarritasuna} + \text{sinergia} + \text{metaketa} + \text{eragina} + \text{aldizkakotasuna} + \text{berreskuragarritasuna}$

Gainera, laburpen bezala batez besteko bat kalkulatu da bloke bakoitzerako. Batez bestekoan baloratutako faktoreak soilik hartu dira kontuan.

- Bizi Kalitatea
- Ekonomia
- Azpiegiturak
- Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza
- Biztanleriaren ezaugarriak

7.6 eranskinean puntuazio guztiak jaso dira, fitxetan.

Fitxetan elementu horien balorazioak jaso aurretik, LZParen eremu geografikoari dagokion informazio garrantzitsua aztertu da.

- Biztanleria datuak: Haur-indizea, zahartze-indizea, atzerritar-indizea.
- Ekipamenduak eta azpiegiturak: Kultur etxea, anbulatorioa, ikastetxeak, parkeak, bidegorriak, aisialdirako guneak, zinema, txokoak, gazteen lonjak.

- Garraioa eta mugigarritasuna: Leku-aldatze kopurua, arrazoiak, nondik nora egiten den leku-aldatzea.
- Adierazle linguistikoak: euskara gaitasuna, etxeko hizkuntza, lehen hizkuntza, adinaren, generoaren eta jaioterriaren arabera
- Euskararen inguruko egituraketa eta baliabideak: UEMA; euskara planak, euskara zerbitzuak, araututako irakaskuntza, komunikazio hizkuntza.

Informazio hori bigarren mailako iturrietatik jaso da:

- Eustat
- INE
- Euskal Herriko Adierazle Linguistikoen Sistemaren Informazioa (EAS)
- Soziolinguistika Klusterra
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
- LZParen hasierako onarpenari buruzko dokumentua

Puntuazioak emateko oinarri bezala hartu da arlo desberdinetako ezagutza (hirigintzakoa, soziala eta linguistikoa). Informazio hori bigarren mailako datuak bilduz eta indizeak eraikiz lortu da. Faktore bakoitzari bere eragin mota positiboa edo negatiboa emateko kontuan izan da hizkuntzarentzako arrisku potentziala, prebentzioaren ikuspuntutik. Tresna osatzen duten elementuei puntuazioa emateko metodoa adostasuna izan da.

Bigarren mailako informazioa jasotzeari esker, hiru indize egin ahal izan ditugu, eta herriz herri baloratu dugu hizkuntzaren hauskortasuna eta LZParen eragina.

- Hauskortasun indizea
- LZParen eraginaren indizea
- Euskararen ezagutzaren proiektzio indizea

3.3 Hauskortasun indizea

Indizea aldagai hauez osatuta dago: biztanle kopurua, euskaldun portzentajea, etxean euskaraz egiten duten pertsonen portzentajea, euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen portzentajea, UEMAko udalerrriak eta EBPn daukatenak. Aldagai bakoitzaren eskala egin da, eta tarte bakoitzari puntuazio bat eman zaio, taula honetan zehazten den bezala:

	ESKALA	BALIOA
	500 biztanletik behera	1
Udalerriko biztanle kopurua	501 eta 1.000 biztanle bitartean	2
	1.001 eta 3.000 biztanle bitartean	3
	3.001 eta 5.000 biztanle bitartean	4
	5.001 eta 20.000 biztanle bitartean	5
	20.000 biztanletik gora	6
	Euskaldun portzentajea	%90etik gora
%90 eta %80 bitartean		5
%80 eta %70 bitartean		4
%70 eta %60 bitartean		3
%60 eta %50 bitartean		2
%50etik behera		1
Lehen hizkuntzaren portzentajea	%90etik gora	6

	%80 eta %90 bitartean	5
	%80 eta %70 bitartean	4
	%70 eta %60 bitartean	3
	%60 eta %50 bitartean	2
	%50etik behera	1
Etxeko hizkuntzaren portzentajea	%90etik gora	6
	%80 eta %90 bitartean	5
	%80 eta %70 bitartean	4
	%70 eta %60 bitartean	3
	%60 eta %50 bitartean	2
Euskararen inguruko egituraketa	%50etik behera	1
	UEMAkoak dira eta EBPN daukate	0
	Edo UEMAkoak dira edo EBPN daukate	2
	Bat ere ez	4

Indizea 3 eta 22 puntu artekoa izan daiteke. Puntuazioaren arabera hiru tarte ezarri dira:

- 22 eta 15 punturen artean Hauskortasun handia
- 14 eta 8 punturen artean Hauskortasun ertaina
- 8 eta 3 punturen artean Hauskortasun txikia

FORMULA: $((\text{etxeko hizkuntza} \times 2) + \text{euskaldunak} + \text{ama hizkuntza})/3 + (\text{herriaren tamaina} + \text{euskara babesa})$

3.4 LZParen eraginaren indizea

Indize horren helburua da LZParen barruko ekintzek hizkuntzarengan izango duten eragina neurtzea. Aldagai hauek osatzen dute:

- Herriaren tamaina
- A1 garapen-ardatzarekiko hurbiltasuna
- Euskaldun portzentajea, kontuan izanda portzentajea zenbat eta txikiagoa izan orduan eta eragin handiagoa izango duela eta erdalduntzeko arriskua handiagoa izango dela.
- Etxean euskaraz hitz egiten duten pertsonen portzentajea. Portzentajea zenbat eta txikiagoa izan, arriskua orduan eta handiagoa.
- Euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen portzentajea. Arrisku handiagoa, portzentaje txikiagoa.
- Euskara babesteko ekintzak.
- Jarduera ekonomikoen intzidentzia LZPak estimatutakoaren arabera, eta horren gehieneko garapena ulertuz. Arloa hiru multzotan banatu da.
- Biztanleriaren handitze-portzentajea, bizi diren biztanleen arabera eta LZParen arabera eraiki beharreko etxebizitza kopuruaren arabera.

Aldagai bakoitzaren eskala egin da, eta tarte bakoitzari puntuazio bat eman zaio, taula honetan zehazten den bezala:

	ESKALA	BALIOA
	500 biztanletik behera	1
Udalerriko biztanle kopurua	501 eta 1.000 biztanle bitartean	2
	1.001 eta 3.000 biztanle bitartean	3
	3.001 eta 5.000 biztanle bitartean	4
	5.001 eta 20.000 biztanle bitartean	5
	20.000 biztanletik gora	6
Erakarpen poloarekiko hurbiltasuna	Hiriburutza	4
	Gehiengo hurbiltasuna	3
	Tarteko hurbiltasuna	2
	Urruntasuna	1
Euskaldun portzentajea	%90etik gora	1
	%80 eta %90 bitartean	2
	%80 eta %70 bitartean	3
	%70 eta %60 bitartean	4
	%60 eta %50 bitartean	5
	%50etik behera	6
Ama hizkuntzaren portzentajea	%90etik gora	1
	%90 eta %80 bitartean	2
	%80 eta %70 bitartean	3
	%70 eta %60 bitartean	4
	%60 eta %50 bitartean	5
	%50etik behera	6
Etxeko hizkuntzaren portzentajea	%90etik gora	1
	%90 eta %80 bitartean	2
	%80 eta %70 bitartean	3
	%70 eta %60 bitartean	4
	%60 eta %50 bitartean	5
	%50etik behera	6
Euskara mantentzeko interesa	UEMAkoak dira eta EBPN daukate	0
	Edo UEMAkoak dira edo EBPN daukate	2
	Bat ere ez	4
LZPn atxikitako etxebizitza portzentajea, dauden etxebizitza guztiekiko	%31tik gora	4
	%21 eta %29 bitartean	3
	%20 eta %11 bitartean	2
	%11tik behera	1
Jarduera ekonomikoen kokaleku mota	A	0
	B	4
	C	8

FORMULA: (Etxebizitza X 5) + ((Euskaldunak + Etxeko hizkuntza + Lehen Hizkuntza)/3)+ hurbiltasuna + euskara babesa + jarduera ekonomikoak.

Indizea 8 eta 47 puntu artekoa izan daiteke. Puntuazioaren arabera hiru tarte ezarri dira:

- 47 eta 35 puntu bitartean eragin handia
- 34 eta 21 puntu bitartean eragin ertaina
- 20 eta 8 puntu bitartean eragin txikia

3.5 Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea

Indize honek euskararen ezagutzak bizitegi-asetamendu berrietan izango duen eragina kalkulatzeko du.

Gehiengoan hipotesi batetik abiatzen gara, hau da, Planean aurreikusitako bizitegi-asetamendu kopuru handiena betetzeko dela da hipotesia.

LZP hazkundeak		
Udalbarrutia	Bizitegi berrien kopurua (Etxebizitzak)	Biztanleak (Etxeak x 3¹)
Abaltzisketa	12	36,0
Aduna	14	42,0
Albiztur	12	36,0
Alegia	125	375,0
Alkiza	13	39,0
Altzo	14	42,0
Amezketeta	65	195,0
Anoeta	254	762,0
Asteasu	60	180,0
Baliarrain	6	18,0
Belauntza	12	36,0
Berastegi	40	120,0
Berrobi	41	123,0
Bidania-Goiatz	19	57,0
Elduain	10	30,0
Gaztelu	9	27,0
Hernalde	13	39,0
Ibarra	565	1695,0
Ikaztegieta	35	105,0
Irura	80	240,0
Larraul	8	24,0
Leaburu	15	45,0
Lizartza	40	120,0
Orendain	8	24,0
Orexa	6	18,0
Tolosa	1.670	5010,0
Villabona	404	1212,0
Zizurkil	550	1650,0
E.F. guztira	4.100	12300,0

Biztanle berrien euskararen jatorria eta ezagutza

Etxebizitza horietara sartuko diren biztanleak egungo migrazio-joeren arabera kalkulatu dira, eta etxebizitzaren %40 Tolosaldeako Eremu Funtzionaleko pertsonak okupatuko dutela kalkulatu da.

Biztanle berrien jatorriaren aurreikuspena	
Tolosaldeakoak	%40,0
Gipuzkoako gainerako lekuetakoak	%20,4
EAEko gainerako lekuetakoak	%1,2

¹ Etxebizitza berrietako familien tamaina hirukoa izango dela kalkulatu da

Nafarroakoak	%1,2
Espainia eta atzerria	%37,2
Biztanle berriak	%100

Migrazio horien jatorria elementu erabakitzaleetako bat da euskararen ezagutzari dagokionez. Ezagutza kalkulatu da arlo desberdinetako ezagutza-neurriei dagokienez.

Euskararen ezagutza jatorriaren arabera					
	Tolosaldea	Gipuzkoa:	Nafarroa	Gainerako EAE	Kanpoko Immigrazioa *
Erdaldunak	%13,2	%33,7	%80,7	%56,8	%99,0
Pasiboak	%15,8	%16,4	%7,6	%17,8	%1,0
Euskaldunak	%71,0	%49,9	%11,7	%25,4	%1,0

* Estatutik edo atzerritik etorriak

Indize horien bidez bizitegi-asetamendu berrietako biztanleen banaketa kalkulatu da, euskararen ezagutzaren arabera.

Udalbarrutia	Biztanle berriak *	Etorritako Erdaldunak	Etorritako Euskaldun pasiboak	Etorritako Euskaldunak
Abaltzisketa	36	16	4	14
Aduna	42	19	5	17
Albiztur	36	16	4	14
Alegia	375	170	42	148
Alkiza	39	18	4	15
Altzo	42	19	5	17
Amezketeta	195	88	22	77
Anoeta	762	346	85	300
Asteasu	180	82	20	71
Baliarrain	18	8	2	7
Belauntza	36	16	4	14
Berastegi	120	54	13	47
Berrobi	123	56	14	48
Bidania-Goiatz	57	26	6	22
Elduain	30	14	3	12
Gaztelu	27	12	3	11
Hernalde	39	18	4	15
Ibarra	1695	769	189	668
Ikaztegieta	105	48	12	41
Irura	240	109	27	95
Larraul	24	11	3	9
Leaburu	45	20	5	18
Lizartza	120	54	13	47
Orendain	24	11	3	9
Orexa	18	8	2	7
Tolosa	5010	2272	559	1974
Villabona	1212	550	135	477
Zizurkil	1650	748	184	650

E.F. guztira	12300	5578	1372	4846
* "biztanle berriak" emaitzan diferentziak egon daitezke (unitate bat edo bi); horren arrazoia da taulan ez direla dezimalak jaso, irakurketa errazte aldera.				

Biztanle euskaldunen ezagutza-tasa kalkulatzeko, kontuan izan behar dira guztizko biztanleria eta migrazio-prozesuaren ondorioz egongo diren biztanle euskaldunak.

Udalbarruti a	Biztanle Guztiak *	Biztanle Euskaldunak	Euskaldunen % LZParen proiekzioaren arabera	Euskaldunen % gaur egun	Galera %
Abaltzisketa	352	297	88,5	94,1	5,6
Aduna	488	385	82,4	86,4	4,0
Albiztur	329	270	86,3	92,1	5,8
Alegia	2165	1373	70,2	76,7	6,5
Alkiza	391	311	83,6	88,5	4,9
Altzo	396	307	81,6	86,6	5,0
Amezketza	1146	874	83,0	91,9	8,9
Anoeta	2598	1307	61,9	71,2	9,3
Asteasu	1675	1196	75,6	80,0	4,4
Baliarrain	143	120	88,7	95,8	7,1
Belauntza	334	237	75,1	79,4	4,3
Berastegi	1162	916	82,9	87,9	5,0
Berrobi	701	448	70,8	77,5	6,7
Bidania- Goiatz	591	466	82,7	87,4	4,6
Elduain	263	213	85,5	91,4	5,9
Gaztelu	198	158	85,4	92,6	7,3
Hernalde	392	289	77,6	81,8	4,2
Ibarra	5924	2755	57,8	65,1	7,4
Ikaztegieta	572	369	71,8	79,11	7,3
Irura	1850	1172	68,4	72,78	4,3
Larraul	273	214	81,7	85,77	4,1
Leaburu	428	312	77,1	81,50	4,4
Lizartza	769	534	75,6	82,27	6,7
Orendain	201	158	83,3	89,29	6,0
Orexa	132	109	87,7	95,33	7,6
Tolosa	23362	12137	60,4	66,13	5,7
Villabona	6994	3847	61,8	66,54	4,7
Zizurkil	4472	1909	57,2	67,65	10,4
E.F. guztira	58301	32707	64,4	71,10	6,7

4 ERAGIN LINGUISTIKOA

Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko hiru galdetegi osatu dira: laburra, zehatza eta faktorez faktore.

Galdetegi laburrean erantzunetako bat baiezkoa bada, ondorengo galdetegi zehatza osatuko da eragina zenbaterainokoa den neurtzeko.

4.1 Galdetegi laburra

Adierazlea	Bai/Ez	Azalpen laburra
Biztanleriaren euskararen ezagutzan - Euskaldun kopuruan	Bai	Etxebizitza berriak aurreikusi dira, ondorioz biztanle berriak erakarriko dituzte. Era berean jarduera ekonomiko berria aurreikusi da. Beraz daitekeena da hiztun kopurua aldatzea.
Biztanleen euskararen erabileran - Gizarte-bizitzaren hizkuntzan	Bai	Etxebizitza berriak aurreikusi dira, ondorioz biztanle berriak erakarriko dituzte. Ekipamendu zentralak sortuko dira. Garraio bideak aldatu, hobetu, berritu eta indartuko dira. Mugikortasuna eragingo du Beraz daitekeena da euskararen erabileran eragitea
Biztanleriaren adin-egituran	Bai	LZParen helburuetako bat biztanleria zahartzea ekiditea da. Etxebizitza berriak aurreikusi dira; ondorioz, biztanle berriak erakarriko dituzte. Beraz, daitekeena da adin egituran eragitea
Jardueren/zerbitzuen komunikazioan	Bai	Jarduera/zerbitzu berriak aurreikusi dira. Beraz, daitekeena da komunikazioan eragitea.
Jardueren/zerbitzuen hizkuntza paisaian	Bai	Jarduera/zerbitzu berriak aurreikusi dira. Beraz, daitekeena da hizkuntza paisaian eragitea.
Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan	Bai	Jarduera/zerbitzu berriak aurreikusi dira. Beraz, daitekeena da euskarazko eskaintzan eragitea
Adierazpen publikoetako euskararen erabileran	Bai	Ez dago adierazpen publikoetako euskararen erabilera aldatuko den edo ez aurreikusteko datu nahikorik LZPan. Alabaina, biztanle berriek eragina izan dezakete.

4.2 Eragin linguistikoa identifikatzeko eta baloratzeko galdetegia

Bost alderdi hartzen ditu kontuan galdetegiak: **bizi-kalitatea** (arreta jarriz tokiko jendea bertan geratzeko, alde egiteko edo kanpoko jendea bertara etortzeko aukerei), **ekonomia** (arreta jarriz enplegu-aukerei, bizi-kostuari eta etxebizitzaren kostuari), **azpiegiturak** (komunitatearen beharretarako nahitaezkoak direnak; besteak beste, eskolak, osasun-zaintza eta oinarritzko zerbitzuak), **komunitatearen gizarte eta kultura bizitza** (arreta berezia jarriz gazteekin lotura duten ekintzei) eta **biztanleria** (biztanleria-mailak eta ezaugarriak).

Bizi kalitatea	BAI/EZ	Deskribapen laburra
1- Proiektuak eragina izan dezake pertsonen mugikortasunean?	Bai	Mugikortasuna handitzea ekarriko dute bizitegi asentamenduek eta ekonomi jardueren asentamenduek, hiltun berriak erakarri ditzake.
2- Proiektuak izango al du eraginik bertako biztanleen osasunean eta bizi kalitatean, jendea bertatik joatera behartuz?	—	
3- Proiektuak eragina izango al du ingurumenean, jendea bertatik joatera behartuz?	—	
4- Proiektuak izango al du eraginik bertako jendearen bizi-mailan? (bizimodua garestitu/merketu)	—	
Ekonomia		
5- Proiektuak eraginik izango al du tokiko negozioetan (dendak, ostalaritza-establezimenduak...)?	Bai	Etxebizitza asentamenduek eta ekonomi jardueren asentamenduek tokiko negozioetan eragina izan dezake, eta hiltunak bertan geratzen lagundu dezake.
6- Proiektuak eraginik izango al du tokiko lanpostuetan?	Bai	Etxebizitza asentamenduek eta ekonomi jardueren asentamenduek tokiko negozioetan eragina izan dezake, tokiko lanpostuak sortu. Hiltunak bertan geratzen lagundu dezake.
7- Sortuko dituen lanpostuak bertako biztanleek beteko dituzte?	Bai	Litekeena da lanpostuak bertako biztanleek betetzea, baina ez dago bermerik.
8- Proiektuak eragina izango al du bertako soldata-mailetan?	—	
9- Proiektuak eragina izan dezake establezimenduetako/enpresetako ahozko edo idatzizko komunikazioan?	Bai	Establezimendu nahiz enpresa berriak ireki daitezke eta horrek gaur egungoa egoera aldatu dezake.


10- Proiektuak eragina izan dezake establezimenduetako/enpresetako hizkuntza paisaian?	Bai	Establezimendu nahiz enpresa berriak ireki daitezke eta horrek gaur egungo egoera aldatu dezake.
11- Proiektuak eragina izan dezake establezimenduetako/enpresetako jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan?	Bai	Establezimendu nahiz enpresa berriak ireki daitezke eta horrek gaur egungoa egoera aldatu dezake.
12- Proiektuak bultzatuko al du ekonomia aniztasun handiagoa egotea?	—	
13- Proiektuak eragina izango al du etxebizitzaren batez besteko kostuan?	—	
Azpiegiturak		
14- Proiektuak eragina izango al du tokiko eskoletan?	Bai	Biztanle berriak etorri gero matrikulazioa handitu daiteke tokiko eskoletan.
15- Eragina izango al du ikasle euskaldunen eta erdaldunen arteko orekan?	Bai	Biztanle berrien ezaugarriek ikasleen lehen hizkuntzan eragina izango luke.
16- Proiektuak eragina izango al du tokiko osasun-zerbitzu eta baliabideetan?	Bai	Ospitalea eraikiko da, eta horrek hiztunen bizi kalitatea hobetuko du, hiztunak eskualdean bertan gelditzen lagundu dezake.
17- Aldaketarik eragingo al dio oinarrizko zerbitzuen hornidurari (dendak, posta bulegoak, bankuak, ostalaritza-establezimenduak...)?	—	
18- Proiektuak erraztu egingo al du toki horretarako sarbidea?	—	
